



# HERRI KIROLAK

2024



GUKA

# talleres AiA

-  Multimarkak
-  Klimatizazioa
-  Elektrizitatea
-  Balaztak
-  Injekzioa
-  Mantenimendua
-  Mekanika orokorra
-  Pneumatikoak
-  IAT zerbitzua: IAT aurrekoa, autoa eraman eta jaso...
-  Mekanika azkarra
-  Diagnostika
-  Ihes kanalizazioak



**4-7**

Jakin beharrekoak

**8-13**

Apustu batetik, ibilbide batera

**14-18**

Itziar Goenaga: "24 urtean aizkoran aritu gabe egon eta gero, aurtan berriro probatu dut"

**20-22**

Aitor Aizpurua: "Gazteak animatu nahiko nituzke idiaren mundura"

**24-32**

Tradizioa eta modernitatea uztartzea, herri kirolen gakoa

**34-40**

Izeta eta Ostolaza, harri jasotzaileen bi harrobi

**42-43**

Herri kirolak: Gipuzkoako sustraiak, kultura eta kirolaren etorkizuna

**44-46**

Nuarbek gordetzen duen historia

Argitaratzailea:

**Urolako Komunikazio  
Taldea**

Testuak:

**Leire Ibar**

**Naia Arrizabalaga**

Helbidea:

Soreasu 1

AZPEITIA

943-81 38 41

943-89 00 17

urolakosta@ukt.eus

**GUKA**  
ZERBITZUAK



**HEDABIDEKIN  
ERE BAI**

**AIZKORA.** Aizkora bakoitza desberdina da. Euskal aizkora gutxi erabiltzen da, australiar aizkora erabiltzen da gehien. Aizkora berezko kalitate ona dute australiarrak, baina australiarrak izanik ere, segun eta ze urtetan eginak diren kalitate desberdinetakoak daude. Gaur egun Euskal Herrian hasiak dira aizkora australiarrak aztertu eta horien antzekoak egiten. Aizkora erosi ondoren, egur bakoitzerako prestatu egin behar izaten da, egur mota desberdinetarako, eta nahiz da pago egurra izan, egur gogorragoetarako eta bigunagoetarako zein kanpoko eta barruko lanetarako prestatu behar izaten dira.

**EGURRA.** Normalean pago enborrak izan dira. Txapelketetan, plazan jartzen dena pago egur berdea izaten da, freskoa eta kanpotik adarrik ikusten ez zaiona. Egurra sorta desberdinetan banatuta egoten da, zuhaitzaren ipurdia puntarekin nahastuta. Izan ere, zuhaitzaren ipurdikoa izaten da egurrik gogorrena, eta zuhaitzaren goialdera joan heinean, egurra bigunagoa izaten da.

# AIZKORA

**Aizkora jokoaren helburua enbor bat edo gehiago aizkoraz ahalik eta denbora gutxienean moztea izaten da, eta banaka, binaka edo taldeka lehiatu daiteke. Enborra, berriz, etzanda edo zutik (australiar erara) jar daiteke.**



**ENBORREN NEURRIAK.** Zirkunferentzia ontzatan adierazten da:

Zirkunferentzia ontzatan	Zirkunferentzia metrotan	Zirkunferentzia metrotan	Izena
36	0,835	0,835	oinbetekoa
45	1,043	1,043	45 ontzakoa
54	1,252	1,252	kanaerdikoa
60	1,391	1,391	60 ontzakoa
72	1,669	1,669	oinbikoa
80	1,855	1,855	80 ontzakoa
108	2,504	2,504	kanakoa
110	2,550	2,550	110 ontzakoa

#### **Euskal Herrian txapelketa garrantzitsuenak**

Euskal Herriko Banakako Lehen Mailako Txapelketa. Lurralde bakoitzeko lehen mailako aizkolariek parte hartzen dute.

Urrezko Kopa; Donostian jokatzeko da abuztuaren 15ean.

#### **Txapelketako lanak :**

- Euskal Herriko lehen mailako aizkora finalerdietako lana:

- 2 enbor 54ontzakook
- 2 enbor 60 ontzakook
- 2 enbor oinbikoak

- Euskal Herriko lehen mailako aizkora finaleko lana:

- 4 enbor 54ontzakook
- 4 enbor 60 ontzakook
- 4 enbor oinbikoak



# HARRI JASOTZEA


Helburua, lurrean den harria sorbaldaraino jasotzea da. Ahalik eta jasoaldi gehien egiten dituenak edo kilo gehien bizkarreratzen dituenak irabazten du.



**HARRIAK.** Harri guztiak granitozkoak dira. Bi eratakoak daude: forma geometrikoa dutenak eta harri baldarrak, alegia, forma irregularra dutenak.

## HARRIAK

KUBIKOA



Kubikoa

ESFERIKOA



Bola



Laukizuzena



Zilindrikoa

**Harri hauek, txapelketetakoak, bere araudi eta neurriak dituzte.**

**TXAPELKETAK.** Txapelketetan honako harriak altxatzen dira:

Harri handien txapelketa

- Zilindroa: 200 edo 175 kilo (bat aukeratu behar)
- Laukizuzena: 175 edo 200 kilo
- Kuboa: 150 kilo
- Biribila: 125 kilo

Harri txikien txapelketa

- Zilindrikoa: 125 kilo
- Laukizuzena: 125 kilo
- Kuboa: 112,5 kilo
- Biribila: 100 kilo

Gipuzkoako txapelketan 2minutu izaten dute harri bakoitzarekin, eta Euskadiko txapelketan, aldiz, 3 minutu izaten dute harri bakoitzarekin.

## HARRI BALDARRAK

### Gure eskualdekoak

#### Harri irregularren txapelketak:

Herri edo auzo bakoitzean antolatzen dituzte txapelketak. Horietan, normalean, bost minutuko txandak egiten dituzte.

Zarautz:

Bi Harri Txapelketa

Gizonezkoak:

- Jai Txiki (117 kg)
- Mollarri (119 kg)

Emakumezkoak:

- Jai Txiki (68 kg) - 2023. urtera arte 51 kilokoa zen
- Mollarri (64,6 kg) - 2023. urtera arte 63 kilokoa zen


Azkoitia:

- Plaza Berri harria: 136 kilokoa



# APUSTU BATETIK, IBILBIDE BATERA

**Plazarik plaza  
aizkoran aritzen dira  
ia astero Julen Alberdi  
Txikia IV.a (Azkoitia,  
1991) eta Mikel  
Larrañaga (Azpeitia, 1989).  
Etorkizunean plaza ugaritan  
batera ariko zirela jakin gabe,  
aizkorako lehen pausoak batera  
eman zituzten, bi kuadrillen arteko  
apustu bat medio. Kirol sakrifikatua  
bada ere, urte luzetan ibilbide oparoa  
egin dute lehiaketetan zein apustuetan  
biek ala biek, ingurukoen laguntza  
ezinbestekoarekin. Azken urteetan  
aizkolaritzak aldaketak izan dituela onartu  
dute biek, baita aizkora ez dela lan fisikora  
soilik mugatzen ere, eta presioa ere kudeatu  
behar izaten dutela.**



Gaur egun, bakoitzak bere bi-dea egiten badu ere, plazetako ibilbidea batera hasi zuten Larrañagak eta Txikiak. Kuadrillen arteko herri kirol apustua jokatu zuten, eta elkarren aurka egitea tokatu zitzaizen aizkoran. Gogoan daukate egun hura: "Ez genuen ezer handirik jokatu, egun-pasa bat izan zen, eta irabaztearen aitzakiarekin, beste egun-pasa bat antolatu genuen". Txikiaren kuadrilla izan zen garaile egun hartan. Apustu haren ostean, ibilbidea-

ri ekin zion azpeitiarrak, eta entrenatzen hasi zen. Alberdik, aldiz, ez zuen "fundamentuz" jarraitu, ikasten ari baitzen, eta erakusketa bat edo beste egin zuen arren, 22 urterekin erabaki zuen aizkoran "serio" hastea.

Orduetik aurrera, plaza ugari egin dituzte biek ala biek, eta euren egunerokotasunean aizkorak presentzia handia hartu du. Larrañagaren hitzetan, "hiru onenen artean" daude, eta maila onean egoteak entrenamendu ugari egitea zein zaintzea

dakartza. Azkoitiarrak nabarmendu du, egunero ez entrenatuagatik ere, elikadura edota deskantsua zaintzea ezinbestekoak direla txapelketa garaian. Lanketa fisikoa ez ezik, presioa kudeatzeko lan psikologikoa ere egin behar dela argi daukate biek.

Maila onean jarduteko helburuarekin, azken urteetan hainbat aldaketa egin dituela nabarmendu du Larrañagak: "Lehen ez nuen horrenbesteko presiorik sentitzen, baina horren





maila onean gaudenez, jendeak zein neure buruak presioa areagotu dute azken urtetan". Hori horrela, horrek plazetan lehen gisa gozatzea galarazi izan dio. Txikiak dio azken postuetan dabilenak galtzeko "ezer gutxi" daukala, eta horrek lasaiago ibiltzea ahalbidetzen diela. Goiko postuetan, ordea, inguruko jardunak ere presioa areagotzen dute azkoitiarraren arabera, "kalte" egiteraino.

Ibilbide luzea egin dute biek ala biek hasiera haietatik goiko

postuetara iritsi artean, eta bide hori aizkoraz haratago joan da. Erakusketak zein txapelketak medio, leku berri ugari ezagutzeko aukera izan dutela azpimarratu du azkoitiarrak: "Herri askotako festak ezagutu ditugu, aizkoragatik ez balitz inoiz ez genituzkeenak ezagutuko". Larrañagaren esanetan, gehienbat Nafarroan zein Gipuzkoan ibili ohi dira. Euskal Herriko plaza ugarian aizkoran aritutakoak badira ere, 2025. urtean Boisseko (AEBak) Euskal Jaira

joatekoak dira biak, nahiz eta atzerrira joatea ez den "ohikoena", bien arabera. Boissen Euskal Herrikan kanpo egiten den euskal kultura ekitaldirik handiena egiten da bost urtean behin.

### “Kirol exigentea eta garestia da aizkora”

Julen Alberdi "Txikia IV.a"



Azken urteetan aizkora jokoak aldaketak izan dituela ezagun dute bi aizkolariek. Larrañagaren esanetan, jende gaztearen zein emakumeen presentzia izan dira aldaketa nabarmenak. Emakumeen kasuan, duela urte batzuetatik hona egoera aldatu dela dio, lehen ez baitzen ohikoa eta gaur egun "sarritan" partekatzen baitituzte plazak elkarrekin. Gazteen kasuan, berriz, Alberdik azpimarratu du eurak hasi arte bealnaudien artean "hutsunea" egon zela, eta gaur egun beraien adinekoetatik gazteetara hamar bat urteko tartea dagoela, nahiz

eta gazte ugari aritu aizkora. Horren atzean dauden arrazoiak argi ditu azkoitiarrak: "Aizkora kirol exigentea eta garestia da, eta inguruan jendea behar duzu laguntzeko prest".

Izan ere, aizko ez da mugatzen egurra moztera. Alberdik nabarmendu du egurra erosteak, aizkorak kanpotik ekartzeak, entrenamenduak prestatzeak zein entrenamendu ostean egurra txikitzeak lan asko dela, eta horretarako beharrezkoa dela gertuko en laguntza. Laguntzarik gabe, "bizi erritmoa eta aizkora" uztartzea zaila dira azkoitiarraren hitzetan. Bere

kasuan, aitzak lagundu dio hasieratik, eta baita Angel Arros-pide zein Joxe Mari Galarragak ere. Horiek gabe ibilbidea egitea "zailagoa" litzatekeela dio. Azpeitiarrak, berriz, Inixio Zendoia zein Joxe Ugarteburu izan ditu bidelagun plazan zein entrenamenduetan.

Plazan aritzeko entrenamenduak beharrezkoak dira, baita horietarako egurra edota aizkorak prest izatea ere. Egur kamiokadak ekartzen dituzte biek, eta gero, hango egurra entrenamenduaren arabera hautatu. Egurra, normalean, Euskal Herrikoa izaten dela dio

azpeitiarrak, Iratikoa eta Urbasakoa, besteak beste. Ekarri aurretik, eurak joaten dira egurrak ikustera, egur mota hori ondo datorkien ziurtatzeko. Txapelketan egin beharreko lanen arabera, egurrak hautatu zein entrenamenduak zehazten dituzte. Egur onenak entrenamendu "onetarako" edo txapelketako test bat egiteko erabiltzen dituela dio azkoitiarrak, eta egur gogorragoak zein adar gehiago dituztenak aldiz, garrantzi gutxiagoko entrenamenduetarako.

Aizkorei dagokienez, aizkorraren hautaketa "mundu bat" dela dio Larrañagak: "Aizkora bati lehen begiradan ez zaio antzematen nolakoa den, eta egurraren arabera ere ez du berdin jokatzeko". Hori horrela, aizkora desberdinak darabiltzate egur motaren arabera, eta plazan zeinekin aritu hautatzea ez da "erraza" azpeitiarrentzat. Aizkorek 2 eta 2,8 kilo arteko pisua izaten dute,

eta goi mailako aizkolari bakoitzak bere ezaugarrien arabera ko aizkora erabiltzen du. Txikiaren esanetan, norberaren gorputzaldiak ere eragina dauka aizkorak hautatzerako orduan: "Unearen arabera indartsuago edo ahulago egon zaitezke, eta aizkoraren pisuak zein egurraren kalitateak asko eragiten du aukeratzeko garaian".

Aizkoran, erakusketek edota txapelketek ez ezik, apustuek ere presentzia handia izan dute historikoki, eta halaxe dute gaur egun ere. Azpeitiarrak hiru apustu egin ditu bere ibilbidean, Txikonen eta Otañoren aurka koak irabazi zituen, Azpeitiko zezen plazan biak, 2017ko ekainaren 1ean eta 2020ko 2014ko azaroaren 29an, hurrenez hurren. Azkena eginikoa, berriz, galdu egin zuen, Iker Vicenteren aurka, 2022ko apirilaren 2an, Tolosako zezen plazan. Hala ere, badu beste apustu bat, "ofiziala" izan ez arren, gogoan duena: "Aizpurutxon Lete eta

Xakuren aurka jokatu nuen apustu bat, eta bien aurka neuk irabazi nuen". Txikiak aldiz bakarra egin du bere ibilbidean; Iker Vicenteren aurka jokatu zuen 2024ko apirilaren 27an Tolosako zezen plazan, 8 enbor 60 ontzako eta 14 enbor 54 ontzako ebakitzea izan zen gauzatu zuten lana, eta Vicentek

### **"Apustuatarako gorputzaren zaintza serioago hartzen dut"**

Mikel Larrañaga

garaitu zuen azkoitiarra.

Apustuek aurretik prestakuntza eta zainketa dakartzate. Kasu horietan, gorputzaren zaintza "serioago" hartu ohi duela onartu du azpeitiarrak: "Tartean diru asko egoten da, zeuk jarritakoa zein ingurukoek zure alde jarritakoa, eta jende horri errespetua

 grupo  
**LAZKANO**  
SUSTAPENAK





zorzaio". Hori horrela, entrenamenduak zein janariaren zaintza zorrozteaz gain, azken hiru hilabeteak horretara bideratu ohi dituela nabarmendu du Larrañagak. Alberdiren esanetan ere, txapelketak bestelakoak dira, aurkari gehiago izaten dituztenez, presioa txikiagoa izaten dela dio.

Elkarren aurka apustu bat egin beharko balute, nolako lana nahiko lukeen galdetuta, honakoa erantzun du azkoitiarrak: "Norberarentzat errazenak direnak eta bestearentzat okerrenak". Larrañagak, aldiz, lanak "mahaian" eseritakoan erabakiko lituzketela dio. Biek laguntzaile gisa "betikoak" emango lituzketela esan dute, urte hauetan guztietan bide-lagun izan dituztenak. ■



# MENDIZABAL

AZPEITIKO ERRETEGIA

HERRI KIROLEKIN



Landeta Hiribidea, 16 - AZPEITIA - 943 81 20 01

# PALMARESA



## Mikel Larrañaga:

- Gipuzkoako lehen mailako txapela 2014an, 2016an, 2021ean eta 2022an.
- Gipuzkoako binakako lehen mailako txapela 2023an.
- Gipuzkoako bigarren mailako txapela 2013an.
- Donostiko Urrezko Kopa 2021ean
- Sherpa.ai Txapelketa Nagusia 2023an
- Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketa 2020an.
- Gabonetako Eusko Label Kopako lau txapel.
- Eusko Label Txapeldunen Ligako txapel bat.
- Urrezko Aizkolari Txapeldunen Liga 2019an.

- Urrezko Aizkolari Txapeldunen Kopa 2017an, 2018an, 2019an eta 2023an.
- Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketa 2020an.



## Julen Alberdi 'Txikia IV.a'

- Gipuzkoako lehen mailako txapela 2019, 2023 eta 2024an.
- Sherpa.ai txapelketa nagusikoa 2022an.
- Sherpa.ai binakako txapelketa nagusia 2021an eta 2023an.
- Urrezko Aizkora 2020an, 2022an eta 2023an.
- Urrezko Aizkolarien Liga 2020an eta 2023an.







**SUKALDEAK**

Hegoalde 8 (Eroski ondoan)  
943-83 52 57

---

**ETXETRESNA ELEKTRIKOAK**

San Frantzisko 3  
943-83 49 60

**ZARAUTZ**





[www.inakisukaldeak.com](http://www.inakisukaldeak.com) · [inakisukaldeak@gmail.com](mailto:inakisukaldeak@gmail.com) · 



A close-up portrait of a woman with short, light-colored hair, smiling slightly. She is wearing a white tank top, a gold necklace, and gold hoop earrings. The background is a blurred outdoor setting with green foliage and a building.

## **ITZIAR GOENAGA:** "24 URTEAN AIZKORAN ARITU GABE EGON ETA GERO, AURTEN BERRIRO PROBATU DUT"

Itziar Goenaga (Azpeitia, 1977) emakume aitzindaria izan zen aizkora. 2000. urtean plazako jarduna albo batera utzi bazuen ere, urte askoan erakustaldi ugari egindakoa da Goenaga. 24 urtez aizkora aritu gabe egon da, baina duela gutxi ebaki zuen enbor bat. Gaur egun hainbeste emakume herri kiroletan ikusteak poza eta inbidia ematen diola aitortu du azpeitiarrak. Hala ere, bere ibilbidea ez da aizkorara mugatu, harri jasotzen, giza proban zein trontzan aritutakoa baita plazan.





“Emakumeek bultzada handia eman diete herri kirolei”

### Noiz eta nola hasi zinen aizkoran?

Osabari esker hasi nintzen. 1992an Aizamazabalen erakustaldia egin nahi zuten lau neskaekin, eta horren aitzakian prestatu nintzen. Kristina eta Maribi Saralegi, Ana Aierdi eta

neuk hartu genuen parte. Horren ondoren, utzi egin nuen pixka batean.

### Zerk bultzatuta hasi zinen berriz?

1997an saralegitarren etxetik dei bat jaso nuen. Maribi, Iker Vicenteren ama, haurdun ze-

goen, eta Kristinak norbait behar zuten erakustaldietarako, beti biak ibiltzen baitziren. Aizamazabalen egindako erakustaldia medio, nirekin akordatu ziren. Ikerren jaiotza giltzarria izan zen ni berriz aizkoran has-teko.



Zarautz eta zarautzarak ardatz dituen astekaria. Jaso astero zure posta elektronikoan.

**Izan Gukakide!**

# ZARAUZKO ASTEKARI DIGITALA



### **Nolakoak izan ziren zure ibilbidearen hasierak?**

Jendeak asko animatzen gintuen, oso maitatuak sentitzen ginen. Diruari dagokionez, mutilek neskek baino gehiago kobratzen zuten txapelketetan zein erakustaldietan. Etxekoek ere asko lagundu zidaten bai entrenamenduekin, baita plazetako ibilbidean ere.

### **Nola entrenatzen zenuen?**

Egurra geure lursailetatik zein zerrategitik eskuratzen nuen. Pinuarekin gehiago entrenatzen nuen pagoarekin baino, merkeagoa ere bazelako. Astean pare bat saio egiten nituen aizkoran, eta gimnasia ere joaten nintzen pisuak altxatzen bizpahiru aldiz. Uda garaian, erakustaldi asko izaten genituen eta ez genuen ia entrenamendurik egiten.

### **Zenbat neska aritzen zintzen?**

Neska gutxi aritzen ginen plazako jardunean. Kristina eta Maika Ariztegi aritzen ziren orduan. Ariztegi oraindik aizkoran jarraitzen du eta miresmena sortzen dit horrek. Nire ustez, ordea, ni aritu nintzen garaian zein lehenago, emakume asko ziren herri kiroletan onak eta abilitade asko zituztenak. Hala ere, ez ziren ausartu jendaurrean aritzera, urte askotan ez baitziren onartuak izan edota ez baitzegoen ondo ikusia. Guk bide bat ireki genuen eta poz ikaragarria ematen dit gaur egun hainbeste neska ikusteak plazetan.

### **Urteotan tentaziorik izan al duzu aizkorara itzultzeko?**

Inbidia ematen didate plazan aizkoran ikusten ditudanek. Ni plazetara ez naiz publiko modura joaten baina telebistaz emanaldi guztiak jarraitzen ditut. 24 urtez ez dut probatu ere egin

aizkora, eta aurten etxera iritsi nintzen batean egur bat eta aizkora bat prest zeuzkaten niretzat sorpresa gisa. Ikaragarri hunkitu nintzen, eta probatu egin nuen. Nire harridurarako, uste baino askoz hobeto moldatu nintzen.

### **Berriro hasiko al zinateke?**

Ez dut uste. Denbora asko eskaini behar zaio aizkorari, ez baita egurra moztea soilik, egurrak prestatzeak ere lan asko dauka. Orain beste lehentasun batzuk daukat eta ezingo nuke berriz hasi. Hala ere, aizkoratik bizitzeko aukera izango banu, dudarik gabe hasiko nintzateke.

### **Aizkoran ez ezik, harri jasozen, trontzan eta giza proban ere aritu izan zara. Zer oroitzen dituzu?**

1998an, Errezilen, gizonezkoek erakustaldi bat egin zuten 52 kiloko hariarekin, eta hura amaitutakoan, emakumeren batek





harri hura altxatzea lortuko balu 5.000 pezeta emango zizkiotela esan zuten. Ni publikoan nengoen, eta nire bila etorri ziren. Bertako batek arropak utzi zizkidan eta harri hura jaso nuen. Horren ostean, Bermeon [Bizkaia] erakustaldi batean parte hartu nuen Errezilgo harri berarekin, Odei Iruretagoiena Izeta IV.a-ren txaleko batekin. Trontzan ere aritzen nintzen eta giza proban ere aritutakoa naiz, 200 kiloko harriarekin Errezilen aritu nintzen 15 urterekin.

### **Zer etorkizun ikusten diezu herri kirolei?**

Azkeneko bost urteotan egoera ikaragarri aldatu da onerako. Horretarako, giltzarriak izan dira emakumeak. Bultzada ikaragarria eman diete herri kirolei, eta plaza askotan eskatzen dituzte emakumeak bakarrik. Bestalde, telebistak ere asko lagundu du herri kirolen mundua ezagutarazten. Ni aizkora aritzen nintzenean, jende asko ez zen jabetzen zertan aritzen ginena. ■

  
**ELOSU KORTA**  
*Dena baserrirako*

Altzibar Hiribidea, 11, Azkoitia • 943 85 19 18



# ARIMAR



## PAGO EGURREZKO SU ERREGAIK

Denoi gustatzen zaigu su on baten inguruko gozotasuna, baina horretarako kalitatezko egurra behar da. Guk geuk ekoitzitako neurri guztietako egur zati eta zanpatutako txirbil briketak bakarrik banatzen ditugu. Egurraren hezetasun maila egokia ere ezinbestekoa da ondo erreko bada, eta instalakuntza berezien bidez, %20 azpitik uzten dugu European eredu diren enpresen gomendioak jarraituz.

---

943-81 10 41

[WWW.ARIMARSL.COM](http://WWW.ARIMARSL.COM)

# AITOR AIZPURUA: "GAZTEAK ANIMATU NAHIKO NITUZKE IDIAREN MUNDURA"

Aitor Aizpurua (Asteasu, Gipuzkoa, 1976) txikitatik egon da baserriaren munduari lotuta. Duela 28 urte oparitu zioten lehen aldiz idi pare bat, eta ordutik, egunero arduratzen da haien zaintzaz. Idi probetan aritzen bada ere, bere esanetan, animalien zaintza da gehien gustatzen zaion eguneroko lana. Hark dioenez, lehiaketetako kontrolen kopurua igo egin da azken urteetan, eta hori aurrerapausoa dela iritzi dio.





### **Noiz eta nolatan hasi zinen idi probetan?**

Baserrian jaio nintzen, eta nire aita zein aitona ferratzaileak ziren; baserriz baserri aritzen ziren idiak ferratzen. Hori dela eta, txikitatik ezagutu izan dut idiaren mundua. 16 urte nitue-nean, duela 28 urte, idi parea oparitu zidan gizon batek, eta ordutik nabil horretan.

### **Nolakoa da idien zaintza lana?**

Lan asko eskatzen du idiaren zaintzak; ez da idi parea erosi eta etxean izatea soilik. Eguneroko joaten naiz haiengana, jaten ematen diet, garbitu egiten ditut... Oso gustura aritzen naiz. Gainera, entrenatu egiten ditugu; txapelketa garaian as-tean hiruzpalau aldiz bai, betiere azkeneko aldiz noiz lehiatu ziren kontuan hartuta. Idi gazteen kasuan, zenbat eta gehiago entrenatu, hobe izaten da.

■  
**"Kontrol batzuk jakinaren gainean garela egiten dizkigute, eta beste batzuk, abisatu gabe"**

■  
**"Animaliak pertsonak bezainbeste nekatzen dira"**

### **Zenbateko kostua du idi batek?**

Elikadurari dagokionez, eguneroko gastua dira pentsua eta belarra. Zenbateko hori albai-tariak gomendaturiko bitaminek edota mineralek igo ohi dute.

### **Zerekin elikatzen dira idiak?**

### **Eta zerbait aldatzen al da lehiaketan garaian eta haien ostean?**

Idi gazteek elikadura osasungarria izan ohi dute, baina pisu jakin baten barruan sartu beharrik ez dutenez, ez da asko zaindu beharrik izaten. Txapelketan aritzen diren idiek, aldiz, pisu jakin baten barruan sartu behar izaten dute, eta ondorioz, kontrolatu egin behar izaten zaie ematen zaien pentsua zein belarra. Idiak gehiago elikatzen ditugu lehiaketaren ostean; barazkiak edota belarra ematen dizkiegu. Pertsonen gisakoak dira; maratonia egin ostean pertsonak nekatu eta gosetu egiten dira, ezta? Idiak ere halaxe egon ohi dira lehiatu ostean.

### **Idi batek zenbat pisatu behar du lehiatzeko?**

Erakustaldietan pisua librekoa izaten da, eta idiak ez dituzte pisatzen. Idi probetan, berriz, bi modalitate daude: 1.140 kiloko idi pareen lehiaketak eta pisu libreko lehiaketak. 1.140 kiloko idien modalitatean, idiak duen zenbateko horretatik gorako kilo bakoitzeko, 1,5 kilo gehitzen zaizkio haiek tira behar dioten harriari.

**Albaitariak zer eskakizun egiten dituzte animaliek lehiatu ahal izateko?**



Idi probaren aurretik, goizean, animaliak ikusten ditu albaitariak, eta idia lehiatzeko moduan dagoen edo ez erabakitzen du. Adibidez, idi proba ofizial batetik bestera hamabi eguneko atsedena utzi behar izaten dugu. Kontrol zorrotzak egiten dituzte, eta guztia justifikatu behar izaten dugu. Esaterako, katarroa zuelako idiari botika bat eman baldin badiozu, zergatik eman diozun eta abar azaldu behar izaten duzu. Jada ez da arraroa albaitariak esatea idi pare batek ez duela lehiatuko. Aldundiak ere kontrolak egiten ditu; antidopinga, esaterako, abisatu gabe. Hala ere, idia gaizki baldin badago, norberak ere nahiago izaten du ez lehiatuta.

### **Asko aldatu al da idi probetarako legedia azken urteetan?**

Bai, aldaketa handiak izan dira, eta onerako, nire iritziz. Duela urte batzuk edozer ikus zitekeen plazan, eta gaur egun, kontrol ugari egiten zaizkie animaliei; batzuetan jakinaren gainean egoten gara eta besteetan ustekabeen etortzen dira. Probetan ere, epaileek ez dute edozer onartzen, eta kaleratuak ere izan ohi dira.

### **Zer eman dizute zuri idi probek eta idiaren munduak?**

Ostalaritzatik bizi naizen arren, idiaren mundua da nire egunerokoa. Probetan baino guturago aritzen naiz idien zaintzan, nahiz eta ordu asko eskatzen dituen horrek. Bi lagunek idi pare bana daukagu baserrian, eta asko gozatzen

dugu entrenamenduetan zein haien garbiketan.

### **Zer-nolako etorkizuna ikusten diezu idi probei?**

Etorkizun iluna ikusten diet. Azken urteak gogorak izan dira, zenbait gaitz tarteko ganadu zein idi asko kendu behar izan baititugu. Instituzioek legeak gogortu egiten dituzte, eta horrek ez du asko laguntzen. Azkoitian, esaterako, azken urteetan lauzpabost baserritatik kendu dituzte idiak. Gainera, gazte gutxi daukagu atzetik. Egia da gazteak etortzen direla idi probak ikustera, baina gutxik dituzte idiak. Probetan aritu behar ez badute ere, gazteak animatu nahiko nituzke idiaren mundura, oso polita baita. ■

# **sidenor**

**Bertako kirolarekin!**



[www.sidenor.com](http://www.sidenor.com)





## TRADIZIOA ETA MODERNITATEA UZTARTZEA, HERRI KIROLLEN GAKOIA

**H**erri kirolak, kirol jarduera soil izate-tik urruti, gure eskualdeko kultura-ren, tradizioen eta identitatearen adierazpena dira. Urte luzeetan zehar, Euskal Herriko plaza ugari bete dituzte herri kirol erakustaldiek, baina badirudi azken urteetan aldaketa anitz izan direla kirolarien profilaria eta horiek herri kirolak ulertzeko duten moduari dagokionez. Tradizioak indarrean jarraitzen badu ere, belaunaldi aldaketarekin batera herri kirolen munduak ere bilakaera izan du. Crossfitak bezalako diziplina berriek lekua hartu dute esparru horretan, eta geroz eta emakume gehiago dira herri kiroltan dabiltzanak.

Lierni Osa (Zarautz, 1995) eta Jon Lapeira (Azpeitia, 1996) crossfitean hasi baziren ere, herri kirolen munduak erakarri ditu. Osa orain dela lau urte hasi zen harria jasotzen eta Lapeirak berriz, ingudearekin lehiatzen du, nahiz eta lesio baten ondorioz lehiaketak alde batera utzi dituen azpeitiarrak. Bi kirolariek argi azpimarratu dute herri kiroltan molde berriak ezartzeko beharra.

Mende batzuk atzera egin beharra da herri kirolen sorrerara joateko, ez hainbeste Lierni Osa eta Jon Lapeiraren hastapenetara heltzeko. Jatorria baserri giroan dute herri kirolek, baina Osak aitortu duenez, bere etxean inoiz ez dira izan herri kirolzaleak, eta crossfitaren bidez ezagutu zuen harria. "Andoni Izetarekin entrenatzen nuen crossfitean, eta berak esan zidan harria probatzera joateko". Lapeira, aldiz, bikote duen Osaren ondoren hasi zen herri kirol probetan: "Beregatik hasi nintzen", adierazi du.

Biek Joxe Ramon Izetaren eskolan egiten dituzte prestaketa lanak. Gaur egun bost neska eta bost mutilek entrenatzen dute han, eta bakoitzak bere entrenatzeko lekua du, bakoitzaren beharren arabera. Izeta baserrian, Harri Toki deitzen dioten txabola moduko bat daukate gizonak, eta han izaten dituzte euren harriak. Emakumeek, aldiz, Zarauzko kiroldegian daukate gela bat beren harriekin. Osak aitortu du hasieran mutilek bakarrik entrenatzen zutela han, eta prestatzaileak neskak entrenatzeko gogoia



zuela. "Ni izan nintzen lehenengoa", adierazi du. Ondoren, proiektura neska gehiago batu ziren; Lur Errekondo edo Ainitze Zumeta, horietako batzuk. Gaur egun guztira bost neskek entrenatzen dute han. Zarautarrak esan du "pozgarria" dela taldea pixkanaka nola handitzen doan ikustea.

Aurreiritziz jositako hastapenak ditu gogoan Osak. Harri jasotzaile ibilbidea hasi zuenean, "honek zer egingo du ba?" eta gisa horretakoak entzun behar izan zituela kontatu du. Azazkalak margotuta izateagatik eta makilatuta joateagatik kritika ugari jaso dituela ziurtatu du. Gogora ekarri du behin fisioterapiako kontsultatik irten eta zain zegoen gizon batek esan ziona: "Zu zara harri jasotzailea, ezta? Ez zitzaidan gustatuko nire andrea harri jasotzailea izatea". Gaur egun, ordea, horrelako komentarioek gutxiago eragiten diotela aipatu du, eta ziurtatu du harri jasotzen jarraituko duela besteek esaten dutenari kasu handirik egin gabe.

### Teknika

Herri kiroletan funtsezko dira indarra, teknika eta koordinazioa, eta horiek orain arte baserriko lanekin eta bizimoduarekin lotuta egon diren arren, gaur egungo kirol diziplina berriekin "gutziz bateragarriak" direla adierazi du Jon Lapeirak: "Crossfiteko ariketa

asko harria jasotzeko entrenamendu saioetan egin behar izaten direnen oso antzekoak dira iraupen, intentsitate eta zama aldetik".

Teknikoki zerikusirik ez dutela azaldu badu ere, kirolaria gorputzaren gainean pisua izatera ohitzen dela nabarmendu du, eta hori oso lagungarria dela herri kiroletako hainbat diziplinatarako. "Ingudearen teknika ikasteko, entrenatzera astean behin joanda nahikoa izaten nuen".

Zarautarrak crossfita eta harri jasotzea uztartzearen ideiarekin bat egiten badu ere, teknika ondo lantzeari garrantzi berezia ematen dio. Haren esanetan, harria jasotze-

ko prestaketa fisikoa ez da soilik gimnasio-ra mugatzen; entrenamendu egonkor eta planifikatu bat behar da. Herri kirolen esparruan, irakaskuntza eta teknikaren hobekuntza funtsezkoak dira. Joxe Ramon Gala du entrenatzailea, Izeta Eskolaren sortzailea eta hango kirolarien prestatzaile nagusia hain zuzen. Entrenamenduen egitura eta iraupena kirolariaren helburuei eta mailari egokitzen zaizkio. Horrelako prestaketek ez dute soilik indarra lantzen, baizik eta teknika hobetzen laguntzen dute. Osak aitortu du "oso-oso entrenatzaile gogorra" dela baina, teknika aldetik hobetu beharrekoak behin eta berriz gogorarazteak alde positiboak ere badituela. "Plazara irtendakoan ikaragarriko segurtasuna ematen digu. 28 jasoaldi egingo dituzula esaten dizu, eta 28 jasotzen dituzu", esan du. Gogoan du bere lehenengo txapelketa; barrez esan du orain txapelketa hartako bideoak ikusi eta "berde-berde" ikusten duela bere burua.

### Pisua eta elikadura

Entrenamenduez gain, emaitza onak lortzeko beste puntu garrantzitsu bat elikadura dela adierazi dute Osak zein Lapeirak. Oinarrizkoa da kirolarien prestakuntzan, eta horrek kirolarien errendimendua hobetzen laguntzen du. Lapeirak dioenez, ez daukate nutrizio plan zehatzik, baina egunerokoan ahalik eta

janari garbiena jaten saiatzen dira. "Guk dakigunarekin osatzen dugu eguneroko dieta, karbohidrato, proteina

eta koipeen proportzio orekatu bat izaten saiatzen gara". Jatekoarekin lotuta, norberaren pisuaren gaia jarri du mahai gainean Lierni Osak. Beste kirol mota batzuetarako gorputz arinak behar diren moduan, harri jasotzailerako "gutxieneko pisu" bat izan beharra dagoela esan du. Nesken kasuan, harri handien txapelketetan parte hartzeko eta 75 kiloko harriarekin lehiatzeko, pisua irabazi behar izaten dutela adierazi du. "Neska asko pisua altxatzearekin zerikusirik

**Entrenamenduez gain, emaitza onak lortzeko beste puntu garrantzitsu bat elikadura zaintzea dela adierazi dute**



ez duten kiroleratik etorri dira, eta bakoitzaren pisua kontuan hartu beharreko faktorea da. Neskek entrenatzeko dituzten harri txikiak 50 kilokoak dira, eta norberak buelta horretan pisatzen badu, zaila da harri hori jasotzen hastea".

Arazo berarekin topo egin duela gaineratu du Jon Lapeirak. Biek esan dute proportzioan gizonen harriak emakumeenak baino astunagoak direla. Mutilentzako harririk arinena 100 kilokoa da, eta hori "edozeinek ezin duela altxa" esan du azpeitiarrak. Probatu duenetan, 100 kilokoa jasotzeko gai izan dela azaldu du, baina garbi utzi du gauza bat dela jaso ahal izatea, eta beste bat pisu horretan lehiakorra izatea. Gaineratu du "asko kostatzen" zaiola pisua irabaztea, eta hori izan zela beste kirol batzuk nahiago izatearen arrazoia: "Orain laurogeita gutxi pisatuko ditut, baina lehian aritzeko kilo gehiago izatea beharrezkoa da". Zarautarrak argitu du nesketan dagoen harririk

handiena 75 kilokoa dela, eta mutiletan txikiena 100 kilokoa. Haren ustetan, hori oztopo izan daiteke mutilak harri jasotzen hasteko. Azpeitiarra harri jasotzen ez dabilen arren, herri kirol ugari probatu ditu, hala nola lokotx bilketa, txinga eroatea eta ingudea. Azkeneko hori izan zen, ordea, gehien gustatu zitzaiona. Bi urte daramatza kirol horretan; iaz Gipuzkoako Txapelketan bigarren egin zuen eta Euskadikoan bosgarren. Orain errekeratze prozesuan dagoela azaldu du, aurtengo Euskadiko Txapelketa baino hilabete lehenago lesionatu baitzen.

### **Betebeharra**

Dudarik gabe, kirolari ona izatea lortzeko gakoa kirolak eskatzen duen konpromiso mailari eustea dela adierazi dute. Azpeitiarraren kasuan prestakuntza "autodidaktakoa" izan da, nahiz eta Joxe Ramon eta Jesus Mari "Izeta anaiak" izan ditu laguntzaile moduan. "Zuzenketa teknikoagoak egiten



dizkidate eta entrenamenduen plangintzan lagundu didate, baina, nire modura ibili naiz". Harri jasotzailearen egoera, ordea, guztiz bestelakoa da. Osak garbi dauka ez dela zaletasun bat, konpromiso handia eskatzen duen kirola dela. Argitu du entrenatzaileak txapelketetara joateko talde bat nahi duela, eta hasten den jende berria ez dagoela prest horretarako. Euskal Herrian

badira lehiaketetara joan gabe entrenatzeko aukera eskaintzen duten beste zenbait zentro, baina Bizkaian daude, Gipuzkoako bakarra da Joxe Ramon Izetarena.

### Plazako erakustaldiak

Entrenamenduetan eginiko lan guztia erakutsi eta hilabeteetako sakrifizioaren fruituak jasotzeko gunea bihurtzen da plaza.

**sakona**  
komuntzo  
etxalde  
ekologikoa

**Astearte goiz eta ostiral arratsaldero Azpeitiko azokan gaude**

677 98 75 70 • sakonaetxaldea@gmail.com  
sakonaetxaldeekologikoa • AZPEITIA

OPAKO ERABILIA  
BIZKAIAN  
Op. anbr.: 1912

**Isidro**  
ERRETEGIA

Aingeru kalea, 16  
20720 AZKOITIA  
Tel.: 943 852 003



Plazako erakustaldiak herri kirolen zati parte garrantzitsua dira. Plazetan emakumezkoak ikustea kontu berria da askorentzat, baina geroz eta gehiago dira emakumezko harri jasotzaileak. Lapeirak eta Osak gaineratu dute azken urteetan emakumezkoen maila "izugarri" igo dela. Orain dela lau urte egin zuen lehen erakustaldia zarautzarrak, hilabetez entrenatuta, eta lautik hirugarren egin zuen. "Orain hori eginda azkena egingo nuke seguru, eta neska gehiagoren artean". Lapeirak honakoa gehitu dio: "Orduan ez zegoen horrenbesteko maila, zuek igo duzue maila".

Liernik adierazi du plazara irteteko lehen aldi horiek ez zirela oso samurrak izan, baina segurtasuna lortzeko prozesuan asko lagundu diola Maite Perurenak, 301K markarekin. Gogoan du nola entrenamenduetako lehen egunean lzetan bertan zeuden arropa "zahar" batzuk utzi zizkiotela. Orain ordea, Perurenak neurrira egindako txaleko eta arroparekin erosoago sentitzen dela argitu du. "Orain txukun jantzita joaten gara plazetara, niri horrek asko lagundu dit kirol honetan aurrera egiterako orduan". Alde estetikoaz gain, norberak neurrira egindako materiala edukitzea asko eskertzen dela

azaldu du. "Ez dut berdin entrenatzen beste baten txalekoarekin".

### **Profesionalizatzeko beharra**

Herri kirolak Euskal Herriko tradizioaren oinarrian dauden jarduerak dira. Hala ere, kirolari gehienentzat, pasioa eta esfortzua eskatzen duten arren, ez dira bizitzeko bidea. Lapeirak argi azaldu du zein den egoera: "Inor ez da bizi herri kiroleetatik soilik. Egia da erakustaldietan diru bat jasotzen dela, baina ez da nahikoa bizimodua ateratzeko". Aste barruan entrenatzeaz gain, asteburu asko lotuta izaten dituzte. Osak dio ez duela argi ea etorkizunean jarraituko duen. "Nik ez dut neure burua beste harri jasotzaile batzuen modura ikusten, 20 urtez harri jasotzen. Nik lau urte daramatzat, eta ez dakit askoz gehiago iraungo dudan".

Harri jasotzaileen erronka nagusietako bat izaten da denboraldiari sasoi onean eustea, ia ez baitu atsedunik ematen. "Egia da denboraldia ez dela inoiz amaitzen. Gainera, ez dago programatuta urte osoko egutegia, eta bukatu dugula pentsatzen dugunean, beste txapelketa bat jartzen digute", azaldu du Osak. Egoera horren aurrean, kirolari askok txapelketa guztietan



parte hartzeko "presioa" sentitzen dute. Jende gutxi dagoelako batez ere, eta bestela, lehiaketak bertan behera geratzeko arriskua dagoelako.

### **Kontzeptu aldaketa eta etorkizuna**

Herri kirolei ikusgarritasuna ematea ez da erraza. Jon Lapeirak, ingude jaurtiketan espezializatutako kirolariak, egoera honen inguruan iritzi argia du: "Nire kasuan, telebis-

tako programek ez dute eragin handiegirik kirolaren ikusgarritasunari dagokionez. Izan ere, herri kirolak minoritarioak baldin badira, ingudea are eta gehiago". Bere ustetan, herri kirolak gutxiengoaren kirolak diren heinean, modalitate espezifikoek ikusgarritasuna izatea are eta zailagoa da; ingudea litzateke horren adibide bat.

Azken urteetan, herri kiroletan berrikuntza bultzatzeko saioak egin dira, eta horietako

**euskaber**  
BASERRIKO ZURE ARRAUTZAK

JAN OSASUNTSU, ELIKATU BERTAKOAREKIN

[www.euskaber.eus](http://www.euskaber.eus)

Gure baserrietatik zure etxera



bat Harri Herri izan da. "Orain arte bi edizio egin dira Harri Herrirenak, oso formatu ezberdina da. Niri, ordea, formatu berri hau pila bat gustatzen zait", adierazi du Osak. Kirolariak uste du herri kirolek berrikuntzaren alde egin behar dutela, gazteak eta ikusle berriak erakartzeko.

Hala ere, tradizioa eta berrikuntza uztartzea ez da beti erraza. Herri kirolean denbora daramatenek ez dituzte beti ondo ikusten aldaketa horiek: "Egia da herri kirolen munduan urte asko daramatenei ez zaiela hainbeste gustatzen. Musikaren partez isiltasuna egon behar dela edo erakustaldia frontoi batean egin behar denaren ikuskera dute". Lapeirak ere aldaketa horiek babestu ditu eta publikoaren aldetik eragin positiboa izan dezaketela uste du: "Kirolean ez baldin bada ezer aldatzen, publikoan ere ez da aldatuko". Bere esanetan, kirolak egokitzapen eta eboluziorik izaten ez badu, publikoak ere ez du interesik izango eta ikusgarritasuna galduko da. Tradizioa eta modernitatea uztartzeko moduak aurkitzea da beraz, herri kirolen etorkizuna bermatzeko gakoa. ■

## Premietxe Berri

- Baserri Tradizionala Gara.
- Gure Helburua Kalitatezko Elikagaiak Ekoiztea Da.
- Etxaldeko Latxa Ardiei eta Haragitako Behiei Esker Ingurumena Mانتentzea Dugu Bizimodu.

Premietxe Berri Baserria • Azpeitia  
 premietxeberri@hotmail.com

f Premietxe Berri Baserria ● Premietxe Berri



# Orain **GUKA** klik bakarrean

ZER ESKAINTZEN DU  
GUKA APLIKAZIOAK?

ALBISTEAK





AGENDA



ATERPE



GUKAKIDE  
TXOKOA



DESKARGATU



Eskuragai  
IOS



Eskuragai  
ANDROID



**GUKA**pp



## IZETA ETA OSTOLAZA, HARRI JASOTZAILEEN BI HARROBI

**Belaunaldiz belaunaldi, afizio bat izan da izetatarren zein ostolazatarren etxeetan. Plazan hainbat urte igaro ostean, harri jasotzen ikasteko eskola bana sortu zuten bi familiek: izetatarrek Zarautzen eta ostolazatarrek Aian, 2013an eta 2015ean, hurrenez hurren. Ikasleen kopuruan gorakada nabarmena antzeman dute azken urteotan, baita emakume harri jasotzaileen kopuruan ere. Gazte ugari aritzen da bi eskoletan asteroko jardunean zein plazan, banaka baina taldean.**

**2**013an Zarautzen zabaldu zuen Joxe Ramon Iruretagoiena *Izeta II.ak* (Aia, 1967) eskualdeko lehen harri eskola. Iruretagoiena bere auzoko festetan hasi zen harri jasotzen eta 35 urte inguru pasatu ditu plazaz plaza. Hasieran dezente sufritu zuela dio aiarrak: "Gaztea nintzenean ez zegoen eskolarik, eta harri jasotzailearen batengana jo behar zenuen ikasteko, baina jendeak ez zuen irakasteko ohiturarik". Hori horrela, plazako jarduna amaitzean, argi izan zuen eskola bat zabaldu nahi zuela gazteek ikasteko aukera izan zezaten. Ikasle kopuruak azken urteetan gora egin duela azpimarratu du. Horren erakusle da honako datu hau: eskola ireki zutenean hamar lagun aritzen ziren, eta gaur egun, 25 bat.

Joseba Ostolazak (Zestoa, 1973), berriz, 2015ean Aian zabaldu zuen harri jasotze eskola. 16 urterako, 200 kiloko harria altxatzen zuen Ostolazak, eta 47 urte bete arte aritu zen egiteko horretan. Zehazki, plazako jardunari joan zen irailaren 29an esan zion agur, Aizarnazabalaren, Jexux Mari Iruretagoiena *Izeta III.* arekin batera. Ostolazak txapelketen ibilbideko azken urteetan jada buruan zebilkien eskolarekin hasteko ideia. Hasieratik zuen argi eskolaren helburua zein izango zen: "Gazteei lagundu nahi nien, harriaren mundura hurbildu nahi nituen". Aiako eskolan 14 urtetik 40 urtera bitarteko ikasleak aritzen dira gaur egun, 22 guztira; zaharrena Jokin Eizmendi da. Zestoarraren arabera, gorputzak berak agintzen



du noiz arte jarraitu, baina lesioek ere badute beren pisua.

Entrenatzailearen papera betetzea, ordea, ez da "lan erraza" bien esanetan. Izeta II.aren hitzetan, baina, pazientzia handia behar izanagatik, ikasleen emaitzek "asebete" egiten dute. Hark dioenez, emaitzak lortzeko entrenatzen du jendea, eta horrek psikologia lantzea ere eskatzen duela aitortu du. Aitarekin aritu ohi da eskolan Odei Iruretagoiena *Izeta IV.a* (Zarautz, 1985): "Eskolara etortzen diren ikasle berriei harria nola jaso erakusten aritzen naiz, eta egiten dituzten akatsak zuzentzen ere bai".

Ostolazak, bere aldetik, argi dauka aita zena, Agustin Ostolaza, bera baino entrenatzaile "gogorragoa" zela: "Lehenengo entrenatzaileak gogorregiak ziren; gaur egun, denborei lotutako pikea egoten da, baina pike sanoa". Gogortasun hori albo batera utzita, zestoarraren arabera, talde giroa nabaritzen da bere eskolako entrenamenduetan: "Batak besteari animoak ematen dizkio, harriak prestatzen laguntzen diote elkari... Giro ona nabari da kirolarien artean". Izetatarrenean ere, lagun giroa da nagusi. Hala baieztatu du Maddi Gesalaga (Zarautz, 2008) harrijasotzaileak. Astero joaten da Izetaren eskolara, eta argi dauka hango kideak familia bat direla. Dena den, entrenamenduetan batera aritzen

badira ere, txapelketetan elkarren aurka jarduten dute sarritan ikasleek. Gesalagaren hitzetan hori ez da igartzen, ordea: "Berdin zaigu entrenatzerakoan aldamenekoak guk baino gutxiago edo gehiago egiten duen. Lagunak gara eta lagundu egin behar diogu elkari".

Belaunaldiz belaunaldi igaro da izetatarren zein ostolazatarren etxeetan harri jasotzearekiko zaletasuna. Ondo gogoan dauka Udane Ostolazak (Orio, 2005) haurra zenean nola egoten zen aitona Agustin Ostolazaren argazkiei begira zein Joseba Ostolaza aitari jarraika plazarik plaza. Argi dauka familiako zaletasunagatik ez balitz, ez litzatekeela hasiko harri jasotzen, baina kirol horrek presentzia handia izan du oriotararren bizitzan betidanik. Gainera, etorkizunean harriaren munduan lan egiteko asmoarekin ari da egiten ikasketak gaur egun. Txikitan bera bakarrik aritzen bazere ere, ahizpa Elene Ostolazak ere eman dio jarraipena etxeko zaletasunari: "Ez ditugu entrenamendu berberak egiten, baina asko laguntzen diogu elkari".

Etxean ikusitakoari segika hasi zen Jakes Iruretagoiena *Izeta V.a* (Zarautz, 2008) ere harri jasotzen: "Etxean betidanik ikusi ditut herri kirolak. Pentsa, haurra nintzenean esnearen tetrabrikekin aritzen nintzen kirolariak imitatu nahian". Harri jasotzen zein aizkoran aritzen da Jakes, eta bi kiroletan zailtzen etxekoek asko



lagundu diotela dio, behar izan duenean beti alboan izan dituela aitortu du. Bere aitak argi dauka, ordea, familia giroan aritzeak alde onak zein txarrak izan ohi dituela: "Harriek zein arroppek beren kostua dute, eta horiek etxean izateak guztia errazten du". Gainera, senideen ar-

tean konfiantza handia dutela azpimarratu du, nahiz eta horrexegatik sarritan "errazago" haserretzea diren. Izeta II.ak azaldu duenez, baina, "ilusio" izugarria egiten dio semea zein biloba berak bizitzaren zati handi bat eskaini dion kirolean aritzeak, eta izetatarren jardunak "urte



askotako" jarraipena izango duela ikustearekin pozarren da aiarra.

Eskolan hasteko arrazoiak bestelakoak izan dira zenbaitentzat. Gesalaga izetatarren eskolan aritzen da, aitonak bultzatuta hasi zenetik. Probatzera joan eta gustatu egin zitzaion jarduna, eta egun plazetan zein txapelketetan aritzen da. Estefania Etxebeste (Ituren, Nafarroa, 2002), berriz, ostolazatarrenean aritzen da: "Urtebetetze egun batean, Josebaren eskolan harria jasotzen probatzeko aukera oparitu zidaten lagunek, eta gustatu egin zitzaidanez, duela urtebete entrenatzen hasi nintzen". Iturendik Aiara ia ordubeteko bidea egiten du astean bitan, baina harentzat kirola barrenak husteko zein jende berria ezagutzeko modua dela adierazi du. Nafarroan harri jasotzen aritzeko zale-tasunik ez dagoela azpimarratu du, batez ere, aizkoran aritzen direlako Ituren eta inguruetan. Hori dela eta, eskolara joan zen lehen aldi hainbeste lagun harri jasotzen ikusita "harrituta" geratu zela aitortu du.

Eskolan asko ikasten badute ere, ez da eskola orduetara mugatzen kirolarien entrenamendua zein gorputzaren zaintza. Eskoletan harria jasotzen irakasten diete, eta hortik aurrerakoak kirolarien esku geratzen dira. Ostolazak dioenez, eskolako jardunaz kanpo prestatzen denak, harria jasotzerakoan "hobekuntzak" sumatzen dituela esan du. Izan ere, kirolariak bestelako entrenamenduak ere egiten dituzte; korrika egitera edo gimnasia joaten dira,

esaterako. Gesalagak argi dauka plazara astean bi entrenamendu eginda irtetzea posible dela, baina hark dioenez, bestelako entrenamenduak egitea aldea sumatzen da.

---

**Harri jasotzen ikasteko bi eskola daude Urola Kostan: izetatarrena Zarautzen, eta ostolazatarrena Aian**

---

**Haurra zenean, esnearen tetrabrikak harria balira bezala hartuta aritzen zen Jakes Iruretagoiena 'Izeta V.a'**

---

**Estefania Etxebesterentzat harri jasotzen probatzeko aukera izan zen inoizko urtebetetze oparirik onena**

---

**50 urtez gizonak ibili izan dira plazetan, baina gaur egun neskek erakustaldi gehiago izaten dituztela nabarmendu du Maddi Gesalagak**



Kirolaz gain, elikadura ere zaindu behar izaten dute kirolariek, nahiz eta hori ere norbere esku egoten den. Izeta IV.ak dioenez, elikadura zaindu ezean "alferrik" da entrenatzea. Imanol Royok (Zarautz, 2004), esaterako, elikadura zaintzeko Paulo Azpiazurengana jo izan du: "Beharrezkoa da gorputzari behar duena ematea, entrenatzerakoan zein plazetan ondo erantzun dezan". Udane Ostolazak, aldiz, urtebete darama nutrizionista batengana joaten, ezin baitu pisua irabazi: "Garbi eta asko jatea gomendatu dit nutrizionistak".

Txapelketetan elkarren arerio bilakatzen bada ere, argi daukate laguntasuna horien gaitetik dagoela. Laguntasuna zein talde izaera nabarmentzen dira bi eskoletako entrenamendu orduetan, animoak emateaz gain, kirolariek elkarri laguntzen baitiote une oro. Royoren esanetan, gogorak izanagatik, astean bitan "gustura" joan ohi dira entrenatzera. Familia bat direla nabarmendu dute kirolariek, nahiz eta banakakako jardunak beldurrak ere azaleratu ohi dituen. Etxebestek aitortu duenez, txapelketetan jarduteak hasieran inpresioa egiten zion arren, entrenatzaileak plazan laguntzeak "lasaitasuna" ematen du.

Azken urteetan, gorakada handia izan du harri jasotzeak emakumeen artean, eta hori bi eskoletan nabaritu dute. Izetatarrenean, esate-

rako, eskola sortu zutenean ez zen emakumerik aritzen harri jasotzen. Hala azaldu du Izeta II.ak: "Hasieran hamar bat lagun aritzen ginen, denok gizonak". Gaur egun, aldiz, entrenamendu orduak banatu egin behar izaten dituzte Izeta IV.aren arabera. Izan ere, lagun "gehiegi" dira elkarrekin aritzeko, eta harri mota desberdinak erabiltzen dituztenez, egun desberdinetan entrenatu ohi dute.

2021ean lehen aldiz, emakumeen Bi Harri txapelketa antolatu zuten Zarautzen. Lucia Orbe, Karmele Gisasola, Lur Errekondo eta Lierni Osa aritu ziren lehian. Izetatarren eskolaren sortzailea emakumeak parte hartzera animatu nahian aritu zen: "Eskubaloian aritzen ziren Lur Errekondo eta Lierni Osa, eta harri jasotze mundura bultzatu nituen". Bi horiek hainbat emakumeri ireki zioten bidea Izeta II.aren esanetan, eta crossfitean aritzen den emakume hainbat ere harria jasotzera animatu izan direla esan du.

Ostolazatarren eskola zabaldu zutenean, Idoia Etxeberria zein Udane Ostolaza aritzen ziren harri jasotzen. Ostolazak esan duenez, bera harri jasotzen hasi zen garaian emakume erreferente gutxi zituen: "Nire aita zein beste gizon asko ziren erreferente nagusiak orduan. Orditik zerbait aldatu baldin bada, horixe da". Ostolaza II.a, bere emazte Miren Etxaberekin

batera, Euskal Herriko Herri Kirol Federazioan sartu zen buru-belarri. Kirol guztiei erreparatuta lan egin badute ere, haiek azaldu dutenez, batez ere nesken harri jasotzeari bultzada ematen saiatu dira: "Bi alaba zein harri eskola edukita, horren alde borrokatzea erabaki genuen, eta fruituak eman dituela esan dezakegu". Gaur egun, ostolazatarren eskolan aritzen dira, besteak beste, Olaia Esnaola eta Garazi Ansa.

Hasierako urratsak modu desberdinetan eman ohi dituzte harri jasotzaileek. Udane Ostolaza, esaterako, haurra zenean hasi zen plazetan harria jasotzen. Hark dioene, jendeari "arraroa" egiten zitzaion ume bat, neska gainera, plazan ikustea. Goizeder Abendibar (Mallabia, Bizkaia, 2008), aldiz, duela urtebete hasi zen harri jasotzen, eta aurretik plazarik plaza aritzen ziren emakumeen laguntza jaso duela azpimarratu du. Historikoki gizonak aritu diren arren, emakumeek ere plazan beren lekua lortu dutela esan du Gesalagak: "50 urtez ibili dira gizonak plazetan, eta gaur egun, ohikoa da emakumeek gizonak baino erakustaldi gehiago egitea". Hori horrela izanik, zarautzarrak esan du entzun izan dituela "orain beti neskak?" gisako komentarioak. Baina argi du: "Emakumeen momentua" da.

Entrenatzerakoan, gizonak eta emakumeek egiten dituzten prestakuntza lanak ez direla berberak esan dute Gesalagak zein Abendibarrek. Hori gorpuzkera zeharo desberdina dutelako dela zehaztu dute. Abendibarrek, gainera, emakumeen harri jasotzea oraindik "berria" dela adierazi du: "Haiseran ez zen erraza emakumeentzako entrenamenduak zehaztea;

izan ere, 50 urtez gizonak zuzenduta aritu dira lanean. Oraindik ere, emakumeen limiteak zeintzuk diren ikasten ari gara; gizonak noraino iritsi daitezken badakigu, ostera". Pisuari dagokionez, adibidez, gizonen batez besteko pistua 100 kilo ingurukoa da; emakumeena, berriz, 60 kilo bueltakoa. Bi kirolarien esanetan, halaber, hormonek ere eragina izan ohi dute: "Guk berdintasuna nahi dugu, baina kontuan izan behar da emakumeak eta gizonak gorputzez desberdinak garela".

### Harrobia eta etorkizuna

Emakumeen harri jasotzeak gorakada izan duen gisara, gazteen artean ere gorakada nabarmena izan du herri kirol horrek, eta hori argi islatzen da eskoletako ikasle kopuruan. Royok argi dauka harri jasotzen hasi izanak eragina izan duela bere inguruan: "Orain gertukoek gehiago jarraitzen dute harri jasotzea, eta erakustaldiak ikustera ere etortzen dira". Gainera, azken urteetan, harri jasotzea eskualdeko "gazte gehiagorengana" iritsi dela uste du zarautzarrak, eta horren arrazoi nagusizat sare sozialak jarri ditu.

Sare sozialek, Instagramek esaterako, bere eskolari onura ugari ekarri dizkiola nabarmendu du Ostolaza II.ak, bere eskola Euskal Herrira ez ezik, mundura zabaltzea lortu duelako: "Jendeak bideoak ikusi egiten ditu, jakin-mina pizten zaio eta probatzera etorri ohi da". Hori horrela dela baieztatu du, Aiako eskolan Pakistango zein Errusiako bisitak jaso dituztela adierazita. Lehengo urtean, adibidez, munduko gizonik indartsuena, Martin Licis letoniarra, harria



Euskal sukaldaritza

**MUNIOSORO**

Eguneko menua  
Asteleneetik larunbatera 12,50 eurotan

Sukaldaritza tradizionala  
eta egur ikatz parrila

Muniosoro 54. Oikia - ZUMAIA - 943-14 78 91



**AIZARNAZABALGO**  
udala

**GURE  
KIROLARIEKIN**

jasotzen probatzera joan zen ostolazatarrenera, eta hark 252 kiloko harria altxatu zuela adierazi du zestoarrak: "Oso indartsua zen, argi geratu zitzaidan titulu hori zergatik zeukan".

Bada bestela pentsatzen duenik ere. Izan ere, Izeta V.ak bere inguruan herri kirol zalea den gazte gutxi ikusten ditu: "Askotan ordaindu egin behar izaten da jaialdiak ikusteko, eta gazte askori ez zaie gustatzen hori". Abendibarrek 16 urte ditu, eta haren esanetan, bere inguruan gehien entzuten diren kirolak futbola edota saskibaloia dira.

Udanek argi dauka azken urteetan aurrerapauso handiak eman dituela harri jasotzeak: "Haurra nintzenean pentsatzen nuen heldu izatera iristen nintzenerako desagertuta egongo zela harri jasotzea. Dena den, egungo egoerari erreparatuz gero, garbia da etorkizuna izango duela". Bestalde, azken urteetan, harri jasotzeak "Gipuzkoako kirola" zela zirudien arren, Euskal Herrian zein munduan zabaldu egin dela argi du Udanek. Hain zuzen, oriotarra Zaragozan zein Valentzian ere aritu izan da harri jasotzen.

Zabalkude handia izan badu ere, Izeta IV.ak ez du hain argi ikusten mutilen harri jasotzearen etorkizuna zer-nolakoa izango den. Izan ere, mutil gazte "gutxi" sumatzen ditu beren atzean: "Eskoletan gabiltzan mutil gehientzuenak helduak gara, eta gazteen segidarik ez dagoela sumatzen dut". Hori horrela, "lana egin beharra" dagoela azpimarratu du zarauz-

tarrak. Horrekin bat dator bere semea ere, bere adin tartean harri jasotzen aritzen diren kide gehienak emakumeak direlako. Hark adierazi duenez, hurrengo urtera begira, ez dakite kintopeko txapelketa egingo ote den, "oso harri jasotzaile gutxi" direlako.

Izeta II.ak esan duenez, etorkizuna bada, baina hori bermatzeak lana egitea eskatzen du: "Txapelketak zein erakustaldiak antolatzen jarraitu beharko lukete erakundeek, esaterako". Izan ere, haren aburuz, eskolako jardunean aritzen denarentzat "motibazioa" da plazak izatea. Horrez gain, eskolak martxan egotearen garrantzia azpimarratu du, horiek jendea bultzatzen baitute harria jasotzen has-tera.

Eskualdeko bi eskolek elkarrekin eskaini zuten erakustaldia joan zen irailaren 29an, Aizarnazabal. Izeta III.aren eta Ostolazaren azken plaza izan zen hura, eta bi eskoletako ikasleek ez ezik, beste 40 harri jasotzailek nahiz erretiratutako beste hainbatek parte hartu zuten hitzorduan. Ostolazak esan duenez, orduko hura ikusita "argi" geratu zen etorkizuna badagoela, eta eskolak ere hor daudela adierazi du hark. Gainera, bi eskolek herritarrentzat "ateak zabalik" dituzte entrenatzaileen esanetan. Abendibarrek argi dauka zer esango lieken eskolara joateko zalantzaz dauden horiei: "Probatzera etortzera animatuko nituzke denak, probatzea-gatik ez baita ezer galtzen". ■



**UGARTE**  
 Burdindegia S.L.  
 943 14 71 54  
 ugarte-zestoa.com  
 ZESTOA





**Herrietatik sortutako  
komunikazio taldea gara,  
gure komunitateaz  
jarduten dugu,  
gure begiekin, gure erara,  
gure hizkuntzatik:**

**GUKA**  
**gara**



## **HERRI KIROLAK:** GIPUZKOAKO SUSTRAIAK, KULTURA ETA KIROLAREN ETORKIZUNA

**GOIZANE ALVAREZ**

GIPUZKOAKO KULTURAKO ETA KIROLETAKO DIPUTATUA

Herri kirolak, Gipuzkoan, aspalditik datorren tradizio baten eta bitzta ulertzeko modu baten funtsa dira. Kirol praktika tradizional hauek zuzenean eramaten gaituzte gure iraganera eta, aldi berean, sendotzen dute gure komunitatearen identitatea eta partaide izateko sentimendua. Herri kirolek islatzen dituzte dedikazioa, talde lana, natura errespetatzea eta gure sustraian garrantzia bezalako balioak. Altxatutako harri bakoitzak, tiratako soka bakoitzak eta aizkora kolpe bakoitzak gure herriaren historia kontatzen dute.

Gaur egun, herri kirolean 18 modalitate dauke, gure bitzta komunitarioaren parte aktibo

dira eta Gipuzkoa osoan praktikatzen dira, tamaina desberdinetako eta errealitate guztiz desberdinetako herrietan. Azkoitiko aizkora txapelketa, Zarautzeko harrijasotze txapelketa edo Aiako zaku lasterketak... gure lurraldeko txoko guztietan kirol hauek bizirik mantentzeko ahalegina egiten da.

Herri kirolen sarea klubek eta federazioek osatzen dute, eta guztien helburua da tradizioari eustea, gaur egunera egokitzea eta etorkizunerantz bideratzea. Gaur egun 53 klub federatu ditugu, Gipuzkoako 30 herri baino gehiagotan banatuak, besteak beste Ataun, Zarautz, Bergara, Usurbil, Villabona eta Hernanin. Klub

horiek dira herri kirolen bihotz eta indarra, adin guztietako kirolari eta zaleentzako prestakuntzako eta lehiako espazio bat eskaintzen dutenak. Oro har, erakusten dute tradizio hau inoiz baino biziago dagoela eta funtsezko papera duela Gipuzkoaren nortasunean.

Eskola adineko 4.000 kirolari baino gehiago ditugu, hezkuntzako eta kiroleko programen baitan herri kirolean aritzen direnak. Gazte horiek dira gure herri kirolen etorkizuna eta, batez ere, gure kulturarena. «Eskola Kirola» programak funtsezko papera du guzti honetan, diziplina bakoitzeko prestakuntza tekniko emateaz gain, herri kirolak hain berezi egiten dituen balioak eta testuinguru kulturala transmititzen baitituzte. Gainera, helduentzako kategoria federatuan ia 250 kirolari ditugu, bere denbora eta ahalegina jartzen dutenak Gipuzkoaren izena eskualdeko lehiaketetan mailarik gorenean.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol departamentuak, Gipuzkoako Herri Kirol Federazioarekin lankidetzatza estuan, lanean jardun gara kirol praktika horiek sustatu eta babesteko, jakitun baikara garrantzi historikoa eta proiektzio kulturala dutela. 2023an, federazioak anbizio handiko urteko programa aurkeztu zuen, ebaluatzen zituena lehiaketen sustapena, teknifikazioa eta gazteen artean partaidetza sustatzea bezalako alderdiak. Ahalegin horrek islatzen du aliantza sendoa eta konprometitua dela, tradizioak mantentzeaz gain egokitzea xede duena, belaunaldi bakoitza kirolek haratago doan oinordetza kultural baten parte senti dadin.

Programa horren helburu nagusietako bat izan da Gipuzkoan lehiaketak sendotzea eta Euskal

Herriko gainerako federazioekin harremanak sustatzea. Lankidetzatza honi esker, eskualdeko txapelketak egin dira, hala nola, Gipuzkoako txapelketak, eta gure kirolariak zazpi lurralde historikoetako txapelketetan parte hartu ahal izan dute.

Beste alderdi garrantzitsu bat da teknikarien inplikazioa, funtsezko zeregina baitute kirol hauek sustatzeko. Gaur egun, Gipuzkoan 26 teknikari federatu daude, eta horiek arduratzen dira kirolariak diziplina horietan prestatu eta gidatzeaz. Haien dedikazioa eta esperientzia gakoak dira bermatzeko herri kirolak bizirik mantenduko direla eta maila profesionalean lehiatzeko beharrezko estandarren arabera egiten direla, jatorrizko izpiritua alde batera utzi gabe.

Gipuzkoak bere herri kirolekin duen konpromisoa kirolek haratago doa; gure kulturarekiko, gure sustraiekiko eta gure identitatearen parte den legatu baten transmisioarekiko konpromisoa da. Gipuzkoako

Foru Aldundiak jarraituko du praktika horiek babesten eta sustatzen, ez soilik kirol diziplina gisa, gure kulturaren funtsezko mugari gisa, baizik. Gure helburua da herri kirolek jarraitzea izaten gure komunitatearen bizitzaren parte aktibo, gazte eta helduen inspirazio eta Gipuzkoa sendo eta bere identitateaz harro dagoenaren adierazgarri.

Herri kirolak gipuzkoarrak batzen dituen eta gure iraganarekin, orainarekin eta etorkizunarekin lotzen dituen hizkuntza partekatua da. Gure erantzukizuna eta da legatu hori babestu eta sustatzea, gure lurraldearen bereizgarria delako eta batu egiten gaituelako. ■

### **Eskola adineko 4.000 kirolari baino gehiago ditugu, hezkuntzako eta kiroleko programen baitan herri kirolean aritzen direnak**



## NUARBEEK GORDETZEN DUEN HISTORIA

**Duela 30 urte ireki zituzten Nuarbeko Sokatira Museoaren atea, baina jende gutxi daki museo hori badenik. Egitasmoa hauspotzeko beharra nabarmendu du Luis Mari Gurrutxaga arduradunetako batek.**

Badira ia 30 urte Nuarbeko Sokatira Museoak atea ireki zituela. Auzoko sokatirako taldearen ibilbidea biltzen duen espazioa 1995. urtean sortu zuten. Urte hartara arte, kirol taldeak lortutako garaikurrak Nuarbeko Loreto tabernan gordetzen zituzten, baina 1991n erre egin zen taberna hura. Ezbeharra gertatu eta lau ur-

tera eraiki zuten erakustokia. Elizarenak ziren bi espazioz baliatu ziren proiektua gauzatzeko, nesken eskola zaharrean kokatuz. Zeretik sortutako egitasmoa izan zen, auzolanari esker berriitu baitzuten gunea. Sokatirako taldekide eta ofizioz igeltsero, elektrikari eta abar ziren lagunak egindako lanari esker lortu zuten taldearen

egoitza izango zena eraikitzea, baita Azpeitiko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzari esker ere.

Museoan ehunka garaikur ikusteko aukera dago, guztiak Nuarbeko taldeak urte luzez lortutakoak. Izan ere, 25 urte-tik gorako ibilbidea bamebiltzen dute garaikurrek –zaharrena 1978. urtekoa da, eta berriena,

berri, 2005ekoa-. Horrez gain, Algis Arlauskas zinemagile errusiarrak ekoiztako dokumental labur bat ere ikus daiteke museoan. Hain zuzen ere, 1993. urtean Nuarbeko Sokatira Taldeak bizitako esperientzia eta bizipenak filmatu zituen hark. Gainera, sokatiraren historia jasota dute zortzi paneletan.

Museoaren barruko bigarren aretoan elementu didaktikoagoak aurki daitezke. Zehazki, taldeak egindako prozesuaren, sokatirako modalitate ezberdinen, taldearen bidaien eta garaipenen argazkiak daude bilduta. Argazki sorta horrez gain, baina, badaude beste zenbait elementu ere: sokatirako arropak, eta nola ez, sokak. Bada hurbiltzen den ororen arreta pizten duen tamaina errealeko sokatiralari baten figura ere.

Museoaren arduradunetako bat da Luis Mari Gurrutxaga,

eta hark jakitera eman duenez, egitasmoa "hauspotzeko beharra" dago. Izan ere, nuarbeta-raren arabera, "pena" da horrelako bilduma izan eta jendeak horren berririk ez izatea. Museoa ezagutarazteko saiakerak egin dituztela aitortuta, erakundeen nahiz turismo sailen bultzada beharrezkoa dela adierazi du. Izan ere, gaur-gaurkoz, erakusketa ikustera joateko bide bakarra sustatzaileekin kontaktuan jarri eta hitzordua adostea da. ■

■

**Erakusketa ikusteko museoaren sustatzaileekin jarri behar da harremanetan**



# ZORTZI URREZKO DOMINA, ZORTZI URTEAN

## KRONOGRAMA

Herriko festetako ezkondu eta ezkongabeen arteko demetatik, nazioarteko sokatirako erreferente izatera iritsi zen taldea.

### • Hasiara (1978 urtea)

Lehen aldiz parte hartu zuten Euskal Herriko Txapelketan.

### • Atzerrira lehenengoz (1980 urtea)

Nazioarteko sokatira, lur gainekoa, guztiz desberdina dela ikusi zuten. Baina grinaz beteta eta aurrera egiteko gosez itzuli ziren.

### • Ofizioa ikasiz eta sendotuz (80 hamarkada)

Sokatiran ikasi eta taldea sendotu zuten. Ondorioz, hainbat garaipen garrantzitsu lortu zituzten.

### • Garai distiratsua (90. hamarkada)

Zortzi urtean zortzi finalerara iritsi ziren 560 kilotan, eta zortzi urrezko domina lortu zituzten: lau europako txapelketetan eta lau mundukoetan.

### • Irabazi ezina (2005 urtea arte)

1981. urtetik 2005. urtera jokaturako Euskal Herriko liga eta txapelketa guztiak irabazi zituzten, pisu guztietan. 800 txapeletik gora lortu zituzten.

### • Erretiroa (2007 urtea)

29 denboraldi bete ondoren, tiralarien kopurua gutxitu eta jarraituko zuenik ez zegoelako, lehiatzeari utzi egin zioten.



ERAIKUNTZARAKO MATERIALEN SALMENTA  
MAKINERIA IGOGAILUEN ALOKAERA



Kalea Orendaundi, 10 behea • AZPEITIA • 943 15 04 56



# BieleGroup

PASSION FOR CHALLENGES


## **Bulego nagusia**

Larrañaga Industrialdea, 1 - 20738 Urrestilla, AZPEITIA Gipuzkoa (España)

Tel.: +34 943 15 70 50

[biele@biele.com](mailto:biele@biele.com)

[www.biele.com](http://www.biele.com)



**LEIHOAK.com**  
eta toldoak



**www.leihoak.com**

**943 002 275 - 619 432 079**

**leihoak@leihoak.com**

Leihoen eta toldoen erakusketa Zelai Ondo, 23 | **ZARAUZ**